

GAZTE TALENT

2026

GAZTE
SORKUNTZA

CREACIÓN
JOVEN

SORTZEN

MUSIKA TALDE ETA
BAKARLARI GAZTEEN LEHIAKETA

CONCURSO DE BANDAS Y
SOLISTAS JÓVENES

OINARRIAK

BASES

www.jimmyjazzgasteiz.com

BABESLEAK / PATROCINADORES

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZADORES

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

2026ko GAZTE TALENT LEHIAKETAREN OINARRIAK

TALDE ETA BAKARLARI GAZTEEN LEHIAKETA

1. Testuingurua

Gazte Talent Jimmy Jazz Elkartek Gasteizko Udalaren Gazteria eta Kultura Zerbitzuekin elkarlanean antolatzen duen musika talde eta bakarlari gazteen lehiaketa da. **"Sortzen" gazte sorkuntza programaren** baitako deialdia da.

Laboral Kutxa eta Arabako Foru Aldundia lehiaketaren babesleak dira; Araba Euskaraz, IAK-Izaskun Arrue Kulturgunea eta Gasteiz Hoy, laguntzaileak. 2026an bere 12. edizioa ospatuko du.

2.-Parte-hartzaileak

Arabako Lurralde Historikoan eta Trebinuko Konderrian bizi, ikasi edota lan egiten duten **14-35 urte** bitarteko **gazteak** (adina betea deialdiaren egunean). Taldekideen % 25a 35-40 urte bitartean izatea onartuko da.

Aukeratutako eta saritutako parte-hartzaileei aipatu baldintzaren egiaztatzea eskatu ahalko zaie.

Lehiaketatik baztertuko dira deialdiaren amaiera egunean merkatuan diskogintza lanen bat edo diskoetxeren batekin kontratua duten taldeak eta bakarlariak. Ez dira baztertuko beraiek finantzatutako diskogintza lanak dauzkatena.

3. Lehiaketaren kategoriak

Parte hartzeko **bi kategoria** egongo dira, taldeetako kideen edota bakarlarien adinaren arabera:

- **Gazte Talent saria:** 14-24 urteko gazteentzat
- **Gazte Talent Laboral Kutxa saria:** 25-35 urteko gazteentzat

Aurkeztutako informazioaren arabera, parte hartzeko kategoria bat esleitu zaio talde edota bakarlari bakoitzari. Talderen batek bi kategoria desberdinetako kideak izatekotan, antolakuntzak eskumena izango du egokitzea jotzen duen kategoria esleitzeko.

Horrez gain, honako accesit-ak ere egongo dira:

- Accesit-a **euskarazko talde edo bakarlari onenarentzat**
- Accesit-a **emakumeen presentzia duten talde edo emakumezko bakarlari onenarentzat**

4. Lehiaketaren faseak

Lehiaketak **bi fase** izango ditu:

1) Izen-ematea eta lanen aukeraketa:

Izena emateko epea irailaren 17tik azaroaren 16ra artekoa izango da, biak barne.

Izena ematerakoan, talde zein bakarlariak **agiri hauek aurkeztu** beharko dituzte:

- Taldearen/bakarlariaren ibilbidearen azalpen laburra, musika estiloa zein den ere aipatuta.
- Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.

- Taldea osatzen duten pertsona guztien NANen edo bestelako identifikazio dokumentuen kopia.
 - Rider tekniko.
 - Argazkia, JPG formatuan.
 - Taldearen edota bakarlariaren grabazioen bat.
- Edozein formatu onartuko da: mp3, grabazioa CDan, YouTube-ko kanalerako esteka, Bandcamp-erako esteka, SoundCloud, eta abar.

Izen-ematea online edo **aurrez aurre** egin ahalko da:

- **Online:** posta elektronikoko bat bidalita gaztetalent@gmail.com helbidera, gaian "Gazte Talent 2026" eta taldearen edota bakarlariaren izena jarrita.
- **Aurrez aurre: Jimmy Jazz aretoaren bulegoetan** (Aldabe kalea 34, 1. esk. - Ordutegia: 10:00 -14:00) edota **Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan** (Plaza Berria 1 - Ordutegia (astelehenetik ostiralera): 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00 (arratsaldeaz astearte eta ostegunetan soilik)).

Bidalitako material guztia aztertu eta entzun ondoren, antolakuntzako kideek osatutako **hautaketa batzordeak** bigarren fasera (zuzeneko kontzertuak) igaroko diren taldeak/ bakarlariak hautatuko ditu.

Kategoria bakoitzeko **hiru talde/bakarlari** aukeratuko ditu.

Hautaketa batzordearen **erabakia 2026ko azaroaren amaieran** jakinaraziko da, eta erakunde antolatzaile eta laguntzaileen ohiko hedabideetan zabalduko da.

2) Talde edota bakarlari finalisten zuzeneko kontzertuak:

Talde finalistek 30 minutu inguruko kontzertua prestatu beharko dute eta epaimahaiaren aurrean zuzeneko emanaldia emango dute. Horretarako, errepertorio zabala izan beharko dute zehaztutako denbora tartean jotzen aritu ahal izateko.

Zuzeneko emanaldiak Gasteizko **Jimmy Jazz aretoan** izango dira.

Datak: 2026ko abenduaren 8an eta 9an.

Epaia: zuzeneko emanaldian musika arloko profesionalek osatutako epaimahaia egongo da. Bestalde, emanaldira hurbiltzen diren entzuleek parte-hartze kuota bat izango dute, euren botoaren bitartez. %10eko eragina izango du epaimahaiaren erabakian. Ezingo da epaimahaiaren erabakia apelatu.

Zuzeneko kontzertuaren ondorengo egunetan, epaimahairen erabakia jakinaraziko zaie talde/bakarlari irabazleei. Era berean, epaiaren berri emango da erakunde antolatzaile eta laguntzaileen ohiko hedabideetan.

5. Sariak

Talde edota bakarlari finalista guztiek 200 €ko saria jasoko dute zuzeneko emanaldietan parte hartzeagatik.

- **Gazte Talent & Laboral Kutxa sariak:** 1000 € kategoría bakoitzeko, eta Gasteizko jaietako programazioaren baitan Falerina lorategian jotzeko aukera, boloa kobratuta (taldeek/bakarlariak hala nahiko balute).

- Kopuru honi finalean parte hartzeagatik jasoko diren 200 €ak gehituko zaizkio.

- **Accesit-a euskarazko talde edo bakarlaririk onenarentzat:** 500 € eta Erresidentzia artistikoa eta mentoretza IAK-Izaskun Arrue Kulturgunean. Nahi izanez gero Araba Euskarazen ere jotzeko aukera izango luke.

- Kopuru honi finalean parte hartzeagatik jasoko diren 200 €ak gehituko zaizkio.

- Talde edo bakarlaririk onena lehiaketako bi kategorien artean hautatuko da. Kategorietako batean irabazle suertatzekotan, ekarpen ekonomiko bakarra jasoko du (Gazte Talent edo Laboral Kutxa sariei dagokiona). Accesitari dagokion emanaldian jotzeko aukera izango du.

- **Accesit-a emakumeen presentzia duten talde edo emakumezko bakarlaririk onenarentzat:** 500 € eta Arabako Foru Aldundiak antolatutako San Prudentzioko jaietan, Armentiko zelaietan, kontzertua emateko aukera, boloa kobratuta (taldeak/bakarlariak hala nahiko balu).

- Kopuru honi finalean parte hartzeagatik jasoko diren 200 €ak gehituko zaizkio.

- Talde edo bakarlaririk onena lehiaketako bi kategorien artean hautatuko da. Kategorietako batean irabazle suertatzekotan, ekarpen ekonomiko bakarra jasoko du (Gazte Talent edo Laboral Kutxa sariei dagokiona). Accesitari dagokion emanaldian jotzeko aukera izango du.

- **Jimmy Jazz erresidentzia artistikoa eta mentoretza:** sei talde/bakarlari finalisten artean, epaimahaiak bat aukeratuko du Jimmy Jazz aretoan burutuko den erresidentzian parte har dezan. Bertan, hainbat egunez, kontzeptu teknikoak eta produkzio kontuak finkatuko dira.

6. Oharrak

Lehiaketari edo bere oinarriei buruzko edozein zalantza izatekotan helbide elektroniko honetara idatz daiteke: gaztetalent@gmail.com.

Bidalitako abestiek letra eta musika originalak izan beharko dituzte. Lehiaketaren antolakuntzak ez du erantzukizunik hartzen bidalitako abestiek beste artista batzuen egile eskubideak urratzen badituzte. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, parte-hartzaileak izango dira erantzule bakarrak.

Antolakuntzak eskubidea izango du, 24 hilabetez, lehiaketan izena emateko garaian aurkeztutako material grafikoak eta audioak zein lehiaketaren bigarren fasean hautatutako talde finalisten kontzertuetan egindako audio eta bideo grabazioak eta argazkiak erreproduzitzeko, edozein bitartekoren bidez (soilik Gazte Talent lehiaketa sustatzeko). Horrek ez du eragozten talde edota bakarlariak ere erabili ahal izaterik.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek guztiak eta antolakuntzaren, hautaketa batzordearen eta epaimahaiaren erabakiak erabat onartzea.

Antolatzaileek eskumena izango dute oinarrietan jaso ez den edozein gorabehera ebazteko.

BABESLEAK / PATROCINADORES

araba/álava
foru aldundia diputación foral



ANTOLATZAILEAK / ORGANIZADORES



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES



BASES DEL CONCURSO GAZTE TALENT 2026

CONCURSO DE BANDAS Y SOLISTAS JÓVENES

1. Contexto

Gazte Talent es el concurso de bandas y solistas jóvenes que organiza la Asociación Jimmy Jazz en colaboración con los Servicios de Juventud y Cultura del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Se trata de una convocatoria enmarcada en el programa de creación juvenil "Sortzen".

Cuenta con el patrocinio de Laboral Kutxa y Diputación Foral de Alava y la colaboración de Araba Euskaraz, IAK- Izaskun Arrue Kulturgunea y Gasteiz Hoy. En 2026, celebrará su 12º edición.

2. Público objetivo

Personas jóvenes de **14 a 35** años que residan, estudien y/o trabajen en el Territorio Histórico de Álava y/o Condado de Treviño (edad cumplida el día de la convocatoria).

Se admitirá que el 25% de los/as integrantes de cada banda tenga entre 35 y 40 años. A los/las participantes seleccionados/as y premiados/as se les podrá exigir la acreditación de dicho requisito.

Se excluirán del concurso los grupos y solistas que en la fecha de cierre de la convocatoria tengan algún trabajo discográfico en el mercado o contrato con alguna discográfica. No se excluirán las obras discográficas financiadas por los/as propios/as músicos/as.

3. Categorías del concurso

Habrará dos categorías de participación, dependiendo de la edad de los/as integrantes de los grupos o de los/as solistas:

- **Premio Gazte Talent:** para personas jóvenes de 14 a 24 años
- **Premio Gazte Talent Laboral Kutxa:** dirigido a personas jóvenes de 25 a 35 años

Según la información presentada se asignará una categoría de participación a cada grupo y/o solista. En el caso de que alguno de los grupos tenga integrantes con edades de ambas categorías, la organización tendrá la competencia para asignar la categoría que considere adecuada.

Adicionalmente, existirán los siguientes accésit:

- Accésit al **mejor grupo o solista en euskera**
- Accésit al **mejor grupo con presencia femenina o solista femenina**

4. Fases del concurso

El concurso constará **de dos fases:**

1) Inscripción y selección de trabajos:

El plazo de inscripción será del 17 de septiembre al 16 de noviembre, ambos inclusive.

En el momento de la inscripción, tanto los grupos como los/as solistas deberán presentar la siguiente documentación:

- Breve descripción de la trayectoria del grupo, incluyendo el estilo musical.
- Teléfono de contacto y correo electrónico.
- Copia del DNI u otro documento de identificación de todas las personas que componen el grupo.
- Rider técnico.
- Fotografía en formato jpg.
- Alguna grabación del grupo o solista.

Se admitirá cualquier formato: mp3, grabación en CD, enlace al canal de YouTube, enlace a Bandcamp, SoundCloud, etc.

La inscripción se podrá realizar **online** o **de forma presencial**:

• **Online:** enviando un correo electrónico a gaztetalent@gmail.com con el tema "Gazte Talent 2026" y el nombre del grupo o solista.

• **De forma presencial:** en las oficinas de la **sala Jimmy Jazz** (calle Aldabe 34, 1º dcha. - Horario: 10:00 -14:00) o en la **Oficina Municipal de Información Juvenil** (Plaza Nueva 1- Horario (de lunes a viernes): 10:00-14:00 y 17:00-19:00 (de tarde sólo martes y jueves)).

Tras analizar y escuchar todo el material enviado, la comisión de selección, formada por miembros de la organización, seleccionará los/as grupos/solistas que pasarán a la segunda fase (conciertos en directo).

La comisión seleccionará tres grupos/solistas finalistas por cada categoría del concurso.

El **acuerdo** del comité de selección se dará a conocer a **finales de noviembre de 2026**. Se difundirá en los medios de difusión habituales de las entidades organizadoras y colaboradoras.

2) Conciertos en directo de grupos y/o solistas finalistas:

Los grupos/ solistas finalistas deberán preparar un concierto de unos 30 minutos y ofrecerán una actuación en directo ante el jurado.

Para ello, deberán contar con un repertorio amplio para poder estar tocando el tiempo especificado.

Las actuaciones en directo tendrán lugar en la sala Jimmy Jazz de Vitoria-Gasteiz.

Fechas: 8 y 9 Diciembre de 2026.

Veredicto: En la actuación en directo habrá un jurado compuesto por profesionales del mundo de la música. Por otro lado, las personas que se acerquen al concierto tendrán una cuota de participación, a través de su voto. Será de un 10% sobre la decisión del jurado. No se podrá apelar la decisión del jurado.

Los días posteriores a los conciertos en directo, se dará a conocer el fallo del jurado a los grupos/ solistas ganadores/as. Asimismo, se difundirá en los medios de comunicación de las entidades organizadoras y colaboradoras.

5. Premios

Todas las bandas/solistas finalistas recibirán un premio de 200 € por su participación en las actuaciones en directo.

- **Premio Gazte Talent & Premio Laboral Kutxa:** 1000 € por categoría y posibilidad de tocar de manera remunerada (si los grupos/solistas quieren) en el jardín de Falerina dentro de la programación de las fiestas de la Blanca de Vitoria-Gasteiz.

- A esta cantidad se le añadirá el premio de 200 € por categoría por la participación en las actuaciones en directo de los grupos/solistas finalistas.

• **Accésit al mejor grupo o solista en euskera:** 500 € y Residencia artística y mentoring en IAK-Izaskun Arrue Kulturgunea, para el grupo/solista ganador al premio de mejor grupo en euskera. Asimismo, posibilidad de tocar en el Araba Euskaraz (si el grupo/solista quiere).

- A esta cantidad se le añadirá el premio de 200 € por la participación en las actuaciones en directo de los grupos/solistas finalistas.

- El/la mejor grupo o solista será seleccionado/a entre las dos categorías del concurso. Si resultase ganador/a en alguna de las dos, recibirá una única dotación económica (la correspondiente al premio Gazte Talent o Laboral Kutxa). Tendrá la opción de tocar en el evento correspondiente al accésit.

• **Accésit al mejor grupo con presencia femenina o solista femenina:** 500 € y posibilidad de tocar de manera remunerada (si el grupo/solista quiere) en las campas de Armentia, en las fiestas de San Prudencio organizadas por la Diputación Foral de Álava.

- A esta cantidad se le añadirá el premio de 200 € por la participación en las actuaciones en directo de los grupos/solistas finalistas.

- El mejor grupo o solista será seleccionado entre las dos categorías del concurso. Si resultase ganador/a en alguna de las dos, recibirá una única dotación económica (la correspondiente al premio Gazte Talent o Laboral Kutxa). Tendrá la opción de tocar en el evento correspondiente al accésit.

• **Residencia artística y mentoring en Jimmy Jazz:** de entre los seis grupos/solistas finalistas, exceptuando el ganador del Accésit al mejor grupo o solista en euskera, el Jurado elegirá uno/a para participar en una residencia de varios días en la sala Jimmy Jazz. Dicha residencia tiene como objetivo afianzar determinados conceptos técnicos y de producción.

6. Observaciones

En caso de tener cualquier duda sobre el concurso o sus bases, escribir a la siguiente dirección de correo electrónico: gaztetalent@gmail.com.

Las canciones enviadas deberán contener letras y músicas originales. La organización del concurso no asume ninguna responsabilidad si las canciones enviadas vulneran los derechos de autor/a de otros artistas. En caso de reclamación, los/as únicos/as responsables serán los/as participantes.

La organización tendrá derecho, durante un periodo de veinticuatro meses, a reproducir, por cualquier medio (exclusivamente para promocionar el concurso Gazte Talent), tanto los materiales gráficos y audios presentados a la inscripción en el concurso, como las grabaciones de audio y video y fotografías realizadas en los conciertos de los grupos finalistas seleccionados en la segunda fase del concurso. Esto no impide que también puedan ser utilizados por los/as grupos y/o solistas.

La participación en el concurso implica la plena aceptación de estas bases y las decisiones de la organización, de la comisión de selección y del jurado.

La organización se reserva la facultad de resolver cualquier incidencia no contemplada en las bases.

BABESLEAK / PATROCINADORES

araba/álava
foru aldundia diputación foral



ANTOLATZAILEAK / ORGANIZADORES



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

